

PIARRRES LARZABAL
(1915-1988)

Egilea:

PIARRES XARRITON

LARRUN MENDIAREN ITZALEAN

Piarres Larzabal 1915eko maiatzaren 5ean, asteazkenarekin, sortu zen Azkaine Mitxelenean, berak 14 urte bete zituen egunean idatzi zuen bezala Piarres Lafitte haren orduko irakasleak begiratu zizkigun bertso paperetan¹.

Aita, Alexandre Larzabal, Urruñako Olhetan jaiozik Azkainera etorria zen. Ama, berriz, Maria Carrera Bidasoako Bera herrian sortua eta gero Sarara jina. Biak gazterik ezkondu ziren gaur hondatua den mugaldeko Mitxelenera, baina laster 1914ko gerlak bereizi zituen. Haur beharretan utzia zuen lagunaren ikustera etortzeko baimena agorturik maiatzaren 6an gerlatokira itzulia zelarik soldadu gaztea, biharamunean, maiatzaren 7an sortu zitzaion bere etxean Piarres semea.



Piarres Larzabal (1915-1988)

¹ Piarres Larzabal-en Idazlanak I, 9-10. orr.

2

Hiru urteren buruan gerlatik etxera itzuli zelarik bizar handi batekin aita Alexandre, Piarres tipia izutu omen zitzaion eta negarrez ihesi joan aitatziren altzora. Orduan bakarrik zuen haurrak onartu aitaren lehen musua. Dena dela, Mitxeleneko senar-emazte gazteak lotu zitzaizkion berehala beren aita-ama xaharren eta haurren hazteko lanari.

Baina familia emendatzearekin, lau haur izanen baitituzte Alexandre eta Mariak (alaba bat, Filomena, eta hiru seme, Piarres, Antton eta Pantxo), aita abiatu zen Mitxelenea baino etxalde joriago baten mian. Larrun mendiaren pentoka berean, baina beherago, aurkitu zuen Ixabelenea eta maizter etxe horretara egin zuten Mitxelenekoek aldaira, Piarresek, hain polliki kontatu ziguna².



Azkaingo, Larzabalen sorterriko, eliza eta plaza

Ixabeleneko haurrek aitatz-
-amatxiekin egin zituzten, alabaina, lehen ikasketak; hots, lehenik otoitzak eta gero beste zenbat karlisten gerlako edo kontrabandoko oroitzapen eta ixtorio xahar! Bere idazkiek erakutsi digute, gainera, nola Piarres tipia bere baitarik eta goizdanik ohartua zen inguramenari eta, «bazterretik bazterrera», loreen, landareen, zuhaitzen eta xorien, arrainen, abereen edo orobat zeru-lurren aberastasunari³.

Laster etorri zen, ordea, katiximara eta eskolara joateko ordua.

² P.L. Idazlanak V, 103-123. orr.

³ P.L. Idazlanak V & VI, passim.

ESKOLAKO ORDUA

Bere Azkaineko eskolaz eta hango errientaz ez du iduri Piarres Larzabalek hainbat oroitzapen onik atxiki duela. Hasteko haren Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia irakurtzen baldin badugu ikusten dugu zanpaldi ederrak hartu zituela harengandik «bere euskara zikina» mintzatzegatik, hainbestetaraino non errientak hastio zituen guztiak bilakatu baitzitzaizkion Piarresi maitagarri.



Larzabal bataiatu zuten eta lehen jaunartzea egin zuen Azkaingo eliza barrutik

Eskolatik kanpo, ordea, Hiriburuko-Bordako pentze zolan aurkitzen zuen gizon xahar bat, aitatxiren adiskide ona, herrian Iñazio Beltza deitzen zutena eta Santa Kruz apez gerlari karlistaren balentriak orratzetik hari kontatzen zizkiona. Ai zer oren goxoak ez zituen haren etxolan iragaiten!

Katiximan bada, Debidart jaun erretorea, sortzez senpertarra, Hazparneko misionestetan egona eta politikaz erregezale amorratua izanez zenbait ernegu izan zituena, baina bere bortitz airearekin bihotz oneko gizona, izan zuen Piarres Larzabalek irakasle eta honek zuen ezarri etxekoen baimenarekin, jakina, jaunartzea herrian egin ondoan, apezteko bidean.

Lehen urratsa hamaika urtetan eman zuen, 1926an, Hazparneko ikastetxean sartu zelarik eta han iragan zituen bi urte, Hiriart-Urruty Hazparne-Latsaldeko apezaren zuzendaritzapean. Ez du sekula ahantziko Larzabalek Hazparneko irakaslek ere, apez izan edo ez, bere Azkaineko errientak bezala, debekatzen ziotela gain-gainetik euskaraz hitz egitea. Eta hori ez die barkatu ez batzuei ez beste⁴.

⁴ P.L. Idazlanak VI, 142. orr.

Hazparnetik lekora Uztaritzeko seminarioa zen Lapurdiko apezgaien eskola-etxea. 1928tik 1933ra bigarren mailako urte guztiak han iraganen ditu Piarres Larzabalek, batxilergo agiria eskuratu arte.

Gero, oporretan, bizpahiru urtez Donibane-Lohizuneko ostatu zerbitzuan lan egin ondoan, soldadugoa aitzinatu zuen Piarres Larzabalek eta 1933ko udazkenean Parisera deitu zuten soldadu.



Hazparneko etxe honetan egin zituen apezetarako lehen ikasketak



Alexandre aitarekin eta Maria amarekin lau neba-arrebak: Filomena, Piarres, Antton eta Pantxoa



Orain ehun urteko Hazparne, honelatsu zen Larzabal apezgai joan zenean, baita geroago bikario eta apez laguntzaile izendatu zutenean ere

SOLDADUZKA ETA GERLA

Anitz gauza ikasi omen zuen Larzabalek soldadugoan eta bereziki ustekabeko ofizio bat: erizaingoa, bere bizi guztian asko baliatuko zuena.

Hala nola, 1934ko otsailaren 6an berean gertatu baitziren Pariseko nahasmendu odoltsuak, zaurituen artatzea tokatu zitzaion apezgai gazteari.

Bere ofizio berriak eman irakaspenez bestalde, izan zuen ere Pariseko misionesten etxean apur bat gogoetatzeko astia, bai eta, antzerki-munduan sar-jalgi zenbait egiteko parada ere; Pariseko antzoki handietan ibiliz batetik eta Labichen edo Scriben frantsesezko komedia batzuk soldadu lagunekin prestatuz bestetik.



Hazparneko Harizbarne antzoki horretan hasi zen Piarres komediak egiten

Ikusiak ikusi, gure azkaindar gaztea ondoko urtean itzuli zen Baionako seminario handira bere apezteko xedean finkaturik.

Bost urte iragan zituen filosofia eta teologiako ikasketak egiten, tartetik apezgai teatrozaleen taldean sartzen zela eta, bere euskarazko lehen ikusgarria *Irri eta Nigar*, gizon mozkor baten merkatutik etxera sartzea, *Gure Herria* aldizkarian argitaratzen zuela (1934).

Azken urtean bada, hots, 1938an, buruzagiek igorri zuten Piarres Larzabal Orzaizera, bere irakasle-dohain apartekoen probatzeko Chorhy erretoreak ireki berri zuen eskolan. Ez zuen bizkitartean Orzaizen luzaz gelditzerik izan, ondoko urtean, apezte orduko, Hazparnera apezlagun bidali baitzuten.

Bospasei asteren buruko ordea, 1939ko irailean, piztu zen II. Mundu-Gerla, eta Hazparneko bikario berria, bere lagunak bezala, joan behar izan zen gerlatokietara.

Baionako 49. errejimentuarekin egin zuen Larzabalek, hastetik bururaino, Frantziako gerla. Bere oroitzapenetan berak kontatu dizkigu lehenik Alemaniako mugetan eta gero, preso hartu zutelarik eta, Strasburgetik Alemanian barna, Oder ibai gaineko Mühlberg hiriraino eramán, berari eta bere lagunei gertatu xehetasun zenbait⁵.

Horrela badakigu beraz Alemaniako preso-zelai batean eri handi zelarik, Suitzako Gurutze Gorriaren ikuskari batzuei esker Suitzara eramán zutela eta gero, han ongi sendaturik, itzuli zela, 1942an, Lyonen gaindi, Hazparnen haren aiduru zegoen bikaritegira.



Hazparneko haurrekin futbol-taldean



Hazparneko gazte-taldearekin Azkainera egindako ibilaldiaren argazkia, Piarresen aita eta amarekin

⁵ P.L. Idazlanak VII, 50-62. orr.

HAZPARNEKO BIKARIOA

1942tik 1951 arte bederatzi urte iragan zituen Piarres Larzabalek Hazparneko herrian Justin Mirande jaun erretorearen apezlagun bezala. Eta berak dio, oro har, zinez urte zoriontsuak izan zirela urte horiek harentzat⁶.

Ez da harritzeko, alde batetik ongi heldu baitzen apez gaztea, parrokiaren berean, edo misionestetan, San Josep ikastetxean aurkitu zituen

apezlagunekin, bai eta Hazparnetik hurbil, Gerezietan eta Donostiran erretore zeuden Zerbitzari eta Oxobi bi adiskide handiekin.

Beste alde batetik, Hazparnek zabal zituelakotz hegalak edo, bikario bakoitzak bazuen bere gain auzo nagusi bat eta Larzabali tokatu zitzaion Zelaiko auzo ederra, bere eskola, seroretxe eta elizatto bereziekin, hots, gure apez gazteak izan zuen hastetik bere kontu parroki gisako bat.



Ekintza Katolikoko gazteak. Larzabalen lehenengo fruituak

⁶ *Ibid.* 70. orr.

8

Hazparne behean aldiz hor zeuden apez berriaren zain, hazpandar gazteak, batzuek langile umeak, besteak laborari etxeetan, 12 urtetakotz eskola utzirik eta formazio handirik gabe lanean hasiak. Gazte horien eskolatzeari, lotu zitzaion berehala Piarres gau eskolak berak antolatuz. Ikasketa horiei esker zenbat gazte ez dira orduan eskolatu, geroxeago herrian berean edo herritik at, sindikatuetan, kooperatibetan eta beste elkarte batzuetan aitzindari agertu direnak!


Horiek oro gertatu ziren urteak, bada, ez ziren beti errazak izan: lehen urteetan, 1942-1944, alemanak hor zebiltzan jaun eta jabe eta haiei ihesi, Pirinio mendiei buruz zetozen jende mota guztien laguntzea arriskugarri zen. Horrela, beraz, zituzten alemanek preso eraman Belokeko komentuko buruzagiak eta, haiek bezala edo haien lagun lan egiten zuten zelaitar multzo bat, herio-zelaietan gelditu baitzen gehiena.

Igande arrats batez, bestalde, bikarioen etxe ondo-ondoan tiroz hil zituzten batere funtsik gabe bi hazpandar gazte, alemanen baimenik gabe etxera buruz destenorez zebiltzalakoan.



Lehen
antzerki-
taldea





Herriko bozak liburuaren azala

Hazparnetik landa ordea, Piarres Larzabal bere Azkaineko sorterritik hurbil igorri zuelarik Baionako apezpikuak, 1951n, Zokoako parrokia berriaren eraikitzaera, erran behar dugu Hazparneko bikarioak bildua zuela ordukotz bestalde izugarriko fama antzerkigile bezala.

Gero gerla bururatu zelarik, 1945-1950ean, arazo berriak sortu ziren, Europa mendebalde guztian bezala, Hazparnen ere, herrigintzak eta sindikalgintzak hats berri bat hartzearekin. Larzabal bikarioa, aitzinetik eskolatu zituen langile edo laborari gazte batzuen bitartez, nolazpait sartu zen edo sartu zuten eztabaida horietan.



Herriko bozak plazaratu zuen taldea

LARZABAL ANTZERKIGILEA

Ez zetorkion Piarres Larzabali bere antzerkigile fama, soil-soilik, berak antzerkirako gaztedanik zuen idazteko dohainetik edo trebetasunetik, ez eta Hazparnen aitzinagotik Zaldunbide, Elizalde, Leon Leon, Mirande eta beste apez batzuek ireki ildoari jarraituzetik ere, baina bai gazteen moldatzeko eta eskolatzeko tresna hauta bezala antzerkigintza erabiltzetik.

Gehiago oraino, so bat emaiten badiogu geroztik lau liburuki gotorretan bildu diren Larzabalen 50 bat antzerkiei, ohartzen gara ez dutela ez guztiek maila bera, ez funtsaren ez formaren aldetik, baina aldaketa handiak urtetik urtera nabari direla.



Zokoako eliza, Larzabalek auzolanean jasoa, iheslari bat baino gehiago ere aritu zen lanean

Irri eginarazteko xedea besterik ez dute hastapenean Hazparneko bikarioaren *Kontrabandistak*, *Lau donadoak*, *Ferrando*, *Dendarietan*, *Manez ohoretan*, *Eiherazainaren astoak*, ala *Xirrixti-mirrixti* antzezlanek. Baina laster antzerkigilea eta jokalaria



Basabeltz Urruñako antzezle-taldea

trebatzen eta ausartzen dira: irri eta negarren artetik, entzun-ikusleari zenbait gogoeta eginarazi nahi dizkio idazleak eta, bera ere bere hizkuntza zorrozten ari da: Hazparneko antzerki-taldearentzat azken urtean Piarres Larzabalek idatzi zuen *Etxahun* dugu lekuko (1951).

Ondotik heldu dira, nolazpait erraiteko, *Etxahun*-en ildotik datozen lanak, gizarte arazoak harrotzen dituzten komediak, hala nola, *Bordaxuri*, *Okilomendi*, *Nork hil du Oihanalde*, *Portu-xoko*, *Herriko bozak*, *Hila espos*, *Hiru ziren*, *Mugari tiro* eta 50eko hamarkadan idatzi gehienak. Orobat Bordeleko ikasleei Piarres Larzabalek Euskarazko teatroaz eman zien mintzaldi batean, gero 1955ean *Gure Herria*-n argitaratu zuenean honelaxe dio: «Otoi euskalduneri erakuts diezaiegun nolakoak diren eta direnarekin zer egin dezaketen. Bizia lagun dezala teatroak, biziarekin kurrituz. Ikusliarrak bete ditzagun ez bakarrik iragan ederraren penez, baina egiteko denarentzat xede suharrez»⁷.

Ondoko hamarkadetan, Euskal Herriaren historian eta Larzabal apezaren bizian gertatzen diren gertakariak izanen dute beren eragina haren idazlanen bilakaeran. Aipa ditzagun beraz gertakari horiek.

⁷ P.L. Idazlanak VI, 119. orr.



Zokoako elizan egindako lehen jaunartze-elizkizuna

11



Larzabalek berak, auzolanean, eraikitako apezetxea



Larzabal mendi-ibilaldian atsedena hartzen



Matalas antzerkiaren berrargitarapena Eusko Jaurlaritzaren Antzerki aldizkarian. *Hilla esposatu* eta *Bordaxuri* Auspoa liburutegiak argitaratuak



ZOKOAKO ERRETORA

Saboiatik 1951n jin Albert Terrier Baionako apezpikuak, Urruñako eta Ziburuko bi parrokiei hegal bana ebatsiz, parrokia berri bat osatzeko gisan Piarres Larzabal Zokoara erretore izendatu zuelarik, ez zion eman ez apezetxerik ez elizarik, ez baitzen han deus horrelakorik. Doi-doia El Sol deitu etxe tipi bat, jabeak hiltzean Urruñako elizari utzia ziona, artetan meza hor eman zezaten. «Eguzkibegi» baitezpada ez zen etxeño horretan aterpetu zen beraz behin batean erretore berria eta hortik berehala lanean hasi.

Eliza eraikitzeko lurra erosi zion lehenik Urruñako herriari eta lekuko gizon multzo batekin parrokiako elkartea osatu. Gero haiekin hautatu zuen elizaren kokaleku izanen zen mendixka, planoen egiteko Pavlosky jauna, donibandar arkitekto ezaguna eta lanez arduratzeko Ganix Alzate Zokoako enpresa-burua. Diru-iturriak eta laguntzak biltzea apezaren gain. Honek bestalde ahal zuen lekuan egin zituen bere lehen bilkurak eta lehen elizkizunak.

Frantzisko Xabierreko saildu euskalduna hautatu zuten Zokoako elizaren zaindari eta Larrart amikuztar apezpiku misionista etorri zen lehen harriaren benedikatzera 1952ko neguko igande batez eta 1954ko ekainean teilatupe berrian lehen konfirmazionea emaitera.

Bost urte luze joan ziren oraino eliza barneko lanak eta aldeko apez-etxe berria ezin bururatuz eta 1959an, azkenean, egin zen lehen bataioa eliza berrian, han berean ezarri sakramentu saildua eta apezak aldaira egin bere etxe berrira, etxe zaharra saldurik.

Azpeitiko Antzerki-topaketetan Larzabali buruz argitaratutako liburua



13



Ehunka artikulu argitaratu zituen Larzabalek han eta hemen



Larzabal bere oroitzenak idazten

14

Ez dugu erraite beharrik bazuela erretoreak nahikoa lan bere parrokiako haur, xahar eta jende helduekin, adibidez urte haietan Dakar-era arrantzara zoazen arrantzariekin, bai eta bestalde udan bereziki itsasertza horretan iragaiten zen dirudun ala dirugabe eta eskale nehongo jende mota guztiekin.

Bizkitartean ez zion uko egiten gure euskal idazleak bere idazte lanari. Eta bazuen horrek ere ondoriozik.

Larzabalen oroitzapenak Piarres Xarritonek paratu eta Elkarrek argitaratuak



Egan aldizkariaren eranskinean argitaratutako antzerki-lanak



EUSKAL IDAZLEA ETA EUSKALTZAINA

Gazterik hasia bazen ere Piarres Larzabal idazten *Gure Herria*-n eta geroago *Herria* astekarian, ez zion behin ere uko egin sail horri ez Hazparnen egon zen denboran ez eta Zokoara etorri zelarik ere⁸.

Baina Algeriako gerla piztearekin bazterrak berotu ziren eta 1959an, gai horretaz *Herria*-n agertu artikulu bipil batengatik astekariaren zuzendaria Piarres Lafitte eta artikulugilea, Piarres Larzabal, auzitegietara jauki zituzten. Auziak franko luze iraun zuen baina, azkenean, gerla hura dakigun bezala bururatu baitzen, bi apez euskaldunak ere zigorrik gabe atera ziren.

1960an aldiz Pantxoa Etxezaharreta azkaindar euskaltzaleari esker Iparraldeko euskaldunek izan genuen paristar batzuek Miarritzeko kasinotik udatiarrentzat eskaintzen zituzten irradi-emankizunen artetik euskarazko zenbaiten sartzeko zortea. Euskal irratilarien taldeak berehala Piarres Larzabali dei egin zion bere emankizunen osatzeko eta horrela idazketa lan handiena Zokoako apezaren bizkar erori zen.



Baionako katedralean egindako gose-greba bateko taldea



Zokoako elizan egindako gose-greba iheslarien alde

⁸ P.L. Idazlanak V, 57-123. orr.

Emankizun horiek arrakasta ederra izan zuten eta horiei esker ziren zabaldu Euskal Herri guztietan, batzuetan Larzabalen hitzekin, hala nola *Bakearen Urtxoia* eta *Gure Elizdorreko*; beste batzuetan berak asmatu bertsoekin, hala nola *Gu gira Euskadiko gazteri berria* eta *Primaderako lilia*, Mixel Labegueriek sortu zituen kantu berriak. Zazpi-zortzi urte iraun zuten Miarritzeko emankizun horiek.

1960ko urte berean sortu zen Iparraldeko abertzaleen lehen aldizkaria eta alderdi politikoa: Enbata deitua. Sortzaileen artean apez bat bazen, hura Piarres Larzabal. Luzaz honek berak idatziko ditu astekariaren euskarazko zutabe nagusiak.



Anai Artean elkartea sortu zuten iheslariei laguntzeko

Ez zituen horrengatik bazterrera utziak beste idazlanak. Erran behar da 1963an Azkaine bere sorterrian egin zuela bere Euskaltzaindian sartzea, Jean Elissalde Zerbitzari (1883-1961) zenaren aulkia hartzeko hautatua izan ondoan. Eta Euskaltzaindian sartuz geroz idatzi ditu bere antzerki larrienak: *Orreaga*, *Paper mende*, *Sarako lorea*, *Urriki latza* 1964an, gero *Lana eri*, *Suedako neskatxa* 1965ean, *Ibañeta* eta menturaz hoberena, *Matalas* 1968an.

Azkenean pastorala gisako bizpalau ikusgarriren asmatzera ausartuko da: *Lartaun*, *Aralar* eta *Orria* adibidez; Oiartzungo, Donostiako edo Azkaingo talde batzuen buru dabiltzan adiskide batzuek bultzaturik beharbada.



Monzonek eta Larzabalek elkarrekin egin zituzten antzerki, kantu eta lan asko



Carrero Blanco hil zutenean debekatu egin zuen Enbata Frantziako gobernuak. Larzabal, Koko Abeberry eta Enbatako zuzendaritza

Dena den, ez luke iduri azken horiek izan direla haren lanik bikainenak eta gainera, beste gisako antzerkirik ere izanen du antolatzeko Zokoako apezak bere mendixkatik ondoko urteetan.

IHESLIARREN APEZA

1960ko hamarkadan hasi ziren Hegoaldetik Iparraldera iragaiten ihesliar abertzaleak. Lehenik, bizpahiru apez, Zokoako apezaren etxean aurkitu zutenak aterpe. Gero, horien ondotik mutil gazte batzuk eta berdin senar-emazte zenbait ere.

Ihesliarren kopurua emendatzearekin, eta Burgos-eko auzi famatua zettorrela, Piarres Larzabal, Telesforo Monzon eta zenbait lagun bildurik asmatu zuten Donibane-Lohizunen Anaiartea izeneko elkarte bat eta biltoki bat sortzea.

17



ETAk bahitutako Beihl kontsul alemana libre dela aldarrikatzeako emandako prentsaurrekoa, 1970.12.25

Orduan gertatu zen Donostiako kontsul alemana, Beilh jauna bahitu zuela ETA erakundeak eta Anaiarteari eskatu zitzaiola ararteko lana egitea.

Hortik landa, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Euskal Herrietan gertatu diren, ihesliarren kanporaketak, erailketak eta ondoriozko gose-grebak edo ehorzketak, horiek guztiek egin dute maiz Zokoa eta Zokoako apeza mintzagai komunikabide guztietan.



Hiletak, Pierre Molerés Baionako apezpikua buru zela. Larzabalek bere hiletarako idatzirik utzi zuen sermoia irakurri zuen Roger Idiart apezak



Ez da dudarik alabaina, ororen jakinean eta batere beldurrik gabe Zokoako apezarengana heldu zirela ihesi, Hegoaldetik Iparraldera, polizia guztiek eta zenbait urtez GAL deitu gaiztagin-taldeek ere lasterkatzen eta tirokatzen zituzten gizon eta emazte euskaldunak. Batzuetan Zokoako elizan ziren egiten haien ezkontzak, haien bataioak eta, zorigaitzez, haien hil-mezak ere, apezaren predikuarekin.

Prediku horietarik zenbait argitaratu zituelarik *Nere Mendixkatik* liburuxkan egileak berak, badakigu euskaltzainkide batek idatzi ziola: «Ez da dudarik bertzek ez bezalako karisma bat baduzula. Zure karismaren arabera ari zare. Ez dautzu Jainkoak bertzerik galdatzen eta Herriak ez du zureganik bertzerik igurikatzen.»

Bizkitartean gertakari lazgarri eta odoltsu horiek guztiek higatu zuten eta azkenean elbarri egin Piarres Larzabal, «ihesliarren apeza» eta beraz 1979ko irailaren 1ean utzi zuen Zokoako erretorgoa.

AZKEN URTEAK

Geroztik, halere, Piarres Larzabal eri handi egon ahal izan zen bizi zeno, hots, zortzi bat urtez, berak eraiki apezetxean, berak noizbait aterbetuak zituen Esteban eta Belen Arizmendi senar-emazteek eta haien haurrek inguratzen eta artatzen zutela.

Orduan berak zioen bezala, herioaren beha deskantsuan zegoela, bere azken xedeak eta oroitzapenak idatzi zituen⁹.

Jaunaren deia etorri zitzaion 1988ko urtarrilaren 11n eta, hiru egunen buruan, ehorzketak egin zirelarik, Pierre Moleres Baionako apezpikua etorri zen Zokoako elizara eta, apezlagunez inguraturik, berak eman zuen hilen meza herriaren aitzinean.

Hil-mezako hitzaldia ordea, gertatzen ez den bezala, hilak berak idatzia zuena, zortzi bat urte lehenago, 1979ko irailean, erretorgoa utzi zuelarik, Roger Idiart apez adixkideak irakurri zuen, idazleak eskatua zion moldean.

⁹ P.L. Idazlanak VI & VII, 195-199. & 9-167. orr.


Bere bizian zenbait aipaldi, gisa guztietakoak, izanak zituen Zokoako erretore zenak, bere herritar maiteak uztean, nahi zuen, azken aldikotz, bere kristau-fedearen aitormena adierazi herriari eta gero, bere euskal herri sofituarentzat baitezpadako zeukan elizaren egiazko irakaspén zuzena oroitarazi, irakaspén hori ahantzi edo ez ikasi duten jende tipi eta handi guztien aitzinean. Eta bururatzen zuen bere azken predikua «Berritz elkar ikus arte!» hunkigarri bat erranez.



Azkaingo herriak bere seme ospetsuari ezarritako oroitarria



Zokoako hilarria, Larzabal ehortzi zuten lekuan



Elizatik lekora, baitzuten berak «hiru metro lur erosiak», bere elizaren gibelean, Zokoako hilerrian eta, han nahi baitzuen ehortzia izan, hara eraman zuten Piarres Larzabalen gorputza.

Orain beraz hor dago berpiztearen zain, bere mendixka gainetik itsasoari eta zeruari begira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *Piarres Xarriton*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1435-X (Obra osoa)
84-457-1436-8

L.G.: BI-2.687-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística